



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko abuztuaren 12a

96. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- “Nafarroako Parlamentua (2020)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (23. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Nafarroako Parlamentua (2020)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Nafarroako Parlamentua (2020)” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. “Nafarroako Parlamentua (2020)” fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**“Nafarroako Parlamentua (2020)”
fiskalizazio-txostena,
Kontuen Ganberak egina**

AURKIBIDEA

- | | |
|--|--|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Nafarroako Parlamentua (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1. Datu orokorrak (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Aplikatzekoa den arau-esparrua (4. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.3. Antolamenduzko egitura (5. or.).</p> <p>III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (5. or.).</p> | <p>IV. Iritzia (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Auditoretza finantzarioko iritzia (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Legeria betetzeari buruzko iritzia (7. or.).</p> <p>V. Urteko kontuen laburpena (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orrria (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (2020) (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. 2020ko abenduaren 31ko diruzaintzagerakina (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. 2020ko abenduaren 31ko balantzea (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. 2020ko ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.6. 2020ko ondare garbian izandako aldaketen egoera-orrria (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.7. 2020ko eskudiru-fluxuen egoera-orrria (13. or.).</p> <p>VI. Konklusioak eta gomendioak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Parlamentuaren aurrekontua (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Aurreko urteetako gomendioen jarraipena (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Kudeaketa-arloak (15. or.).</p> <p>Eranskina. Nafarroako Parlamentuaren organigrama (21. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (22. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (22. or.).</p> |
|--|--|

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2021eko martxoaren 29an hartutako erabakia betez, ganbera bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin eta 2021erako jarduera-programarekin bat, Nafarroako Parlamentuaren 2020ko ekitaldiari dagokion urteko kontuen aurreproiektua fiskalizatu du.

Txostenak sei epigrafe ditu, sarrera hau barne. Bigarren epigrafean, Nafarroako Parlamentuaren eta haren arau-esparruaren alderdi orokorrak deskribatzen ditugu. Hirugarrenean fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa adierazten ditugu, eta laugarrenean gure iritzi finantzarioa ematen dugu Parlamentuaren 2020ko ekitaldiari dagozkien urteko kontuei eta legeriaren betetzeari buruz. Bosgarren atalean urteko kontuen laburpen bat erantsi dugu. Seigarrenean, Parlamentuaren finantza- eta aurrekontu-egoerari eta kudeaketa-arlo garrantzitsuei buruzko konklusioak eta gomendioak sartu ditugu.

Txostenak Nafarroako Parlamentuko organigrama azaltzen duen eranskin bat jasotzen du.

Lana 2021eko maiatzean egin zuten bi auditoretza-teknikarik eta auditore batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Parlamentuko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, lan horren emaitzak ezagutzera eman ziren, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak alegazioak egin zitzaizkion.

Nafarroako Parlamentuko lehendakariak alegazioak aurkeztu ditu Kontuen Ganberak emandako epean. Alegazio horiek argibideak dira, eta behin betiko txostenari erantsi zaizkio.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Parlamentuko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

II. NAFARROAKO PARLAMENTUA

II.1. DATU OROKORRAK

Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du eta bere esku du legegintzako ahalmena. 50 parlamentarik osatzen dute.

2019ko ekainaren 19an, X. legegintzaldia eratzeko bilkura egin zen sei talde politikorekin. Talde horiek 2019ko maiatzaren 26an egindako hauteskundearen emaitza dira, eta lortutako parlamentari-kopuruari dagokionez, taula honetan islatzen da egoera:

Alderdiak/koalizioak/elkartek	Parlamentari kopurua
Navarra Suma talde parlamentarioa	20
Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa	11
Geroa Bai talde parlamentarioa	9
EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa	7
Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarte	2
Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa	1
Parlamentariak, guztira	50

Nafarroako Parlamentuaren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

2020ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Nafarroako Parlamentuaren funtsezko datu ekonomikoak eta langile-arlokoak:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2020-12-31n
Nafarroako Parlamentua	14.858.916	12.282.977	69

II.2. APLIKATZEKO DEN ARAU-ESPARRUA

Nafarroako Parlamentuari 2020ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua ondoko hau da:

- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, eta 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoari buruzkoa.
- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bategina, Mahaiak 2011ko irailaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia. 2020ko urriaren 15ean Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak aldatu egin zuen.
- Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolamenduari buruzko erregelamendua.
- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an onetsia.
- Parlamentarien ordainsariei buruzko araua, Parlamentuko Batzorde Iraunkorraren Mahaiak 2007ko ekainaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez onetsia, eta haren 2011ko eta 2015eko aldaketak.
- Behin-behineko langileen ordainsariei buruzko araua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2012ko abenduaren 17ko Erabakiaz onetsia.
- Mahaiaren 2019ko irailaren 2ko Erabakia, talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauak onesten dituena.
- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa, Parlamentuko Mahaiak 2020ko urtarrilaren 27an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.

II.3. ANTOLAMENDUZKO EGITURA

Gobernu-organoak Osoko Bilkura, Mahaia, Eledunen Batzarra eta Batzorde Iraunkorra dira. Txosten honen 1. eranskinean Nafarroako Parlamentuaren organigrama ageri da.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Finantza- eta legezketasun-ikuskapen bat egin da Nafarroako Parlamentuaren 2020ko ekitaldiari dagokion urteko kontuen aurreproiektuari buruz, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Ea 2020ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten duten Parlamentuaren 2020ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokionez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldian izan dituen emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokionez ere, jarraiturik aplikatzekoa den informazio finantzario publikoaren araudiari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei.

- Ea 2020ko ekitaldian egindako aurrekontu- eta finantza-jarduerak eta -eragiketak eta 2020ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuetan jasotako informazioa bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko arauekin.

- Aurreko urteetan emandako gomendioen betetzea.

Nafarroako Parlamentuaren 2020ko urte-kontuen fiskalizazioaren norainokoa. Honako hauek dira kontabilitateko egoera-orriak:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- Balantzea.
- Ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria.
- Eskudiru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2020ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

Legeriaren betetzeari dagokionez, norainokoa dagokie txosten honen VI. atalean aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketei.

IV. IRITZIA

Nafarroako Parlamentuaren 2020ko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektua fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ERANTZUKIZUNA

Parlamentuko Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua urteko kontuen aurreproiektua egiteaz arduratzen da, eta legelari nagusiar aurkeztuko dio, azken horrek Parlamentuko Mahaiari helarazi eta Eledunen Batzarrak onespena eman diezaion. Aurreproiektu horrek irudi zehatza eman beharko du Parlamentuaren aurrekontu-likidazioari, ondareari, emaitzei eta finantza-egoerari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz; erantzukizun horrek barne hartzen du urteko kontuak egiteko eta aurkezteko barne-kontrol egokia sortzea, ezartzea eta mantentzea, iruzur edo okerren ondoriozko akats materialik gabe.

Txosten honek aztergai duen urteko kontuen aurreproiektua 2021eko martxoaren 24an egin zuen Nafarroako Parlamentuko jarduneko kontu-hartzailleak, eta 2021eko martxoaren 30ean eskuratu zitzaigun.

Parlamentuko Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak bermatu behar du ezen urteko kontuak erakusten dituzten jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauekin, eta halaber ezarri behar ditu helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontroleko sistemak.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2020ko ekitaldiko urteko kontuen fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruz ISSAI-ES 200 delakoan ezarritakoen arabera, bai eta betetzearen fiskalizazioari buruzkoa den ISSAI-ES 400 delakoan ezarritakoen arabera ere. Halaber, kanpo kontroleko organoen fiskalizazio-gida praktikoak erabili ditugu. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea urteko kontuetan akats materialik ez egoteaz; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduerak, finantza-eragiketak eta informazioa arau indardunen arabera izatea alderdi adierazgarri guztietan.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoretza-ebidentzia bat lortze aldera urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuek ekitaldi fiskalizatuan zehar izandako betetzeari buruz ere.

Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela arriskuaren balorazioa, hala iruzur edo errakuntzaren ondorioz kontu orokorrek akats materialak izatearen arriskuarena nola lege-urraketa muntadunak egotearen arriskuarena. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak gogoan izaten du entitateak urteko kontuak egiteko muntaduna den barne-kontrola, inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatzearen, eta ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia ematearen.

Auditoria batek barne biltzen du, era berean, ebaluatzea aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta beren osotasunean harturiko kontu orokorren aurkezpena ebaluatzea ere.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du finantzei eta betetzeari buruzko gure fiskalizazio-iritzia funtsatzeko.

IV.1. AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritiz, 2020ko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektuak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten du, Parlamentuaren 2020ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontu-koei dagokienez, betiere jarraiturik aplikatzekoa den informazio finantzario publikoaren gaineko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei.

IV.2. LEGERIA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritiz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Parlamentuaren 2020ko ekitaldiko jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta finantzen egoera-orrietan jasotako informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

V. URTEKO KONTUEN LABURPENA

Jarraian, Parlamentuaren 2020ko ekitaldiko urteko kontuen kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenak erakusten ditugu.

V.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA**Gastu-aurrekontuaren betetzea**

Gastuak	Hasierako kredituak	Aldaketa	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebehargarbiak	% betea	Ordainketak
1. Langile-gastuak	8.199.744	0	8.199.744	7.249.844	88	7.249.844
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2.346.926	9.738	2.356.664	1.408.771	60	1.283.565
4. Transferentzia arruntak	3.144.876	49.383	3.194.259	2.997.668	94	2.988.589
5. Kontaketa orokorra eta bestelako ustekabekoak	146.035	0	146.035	0	0	0
6. Inbertsio errealak	912.010	240.908	1.152.918	609.953	53	603.329
8. Aktibo finantzarioak	57.795	0	57.795	16.741	29	16.741
9. Pasibo finantzarioak	3.005	0	3.005	0	0	0
Gastuak, guztira	14.810.391	300.029	15.110.420	12.282.977	81	12.142.068

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubidegarbiak	% betea	Kobrantzak
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.860	0	2.860	43.380	1517	43.380
4. Transferentzia arruntak	13.834.711	0	13.834.711	13.834.711	100	13.834.711
5. Ondare-sarrerak	10	0	10	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	942.205	0	942.205	942.205	100	942.205
8. Aktibo finantzarioak	30.010	300.029	330.039	32.620	110	32.620
9. Pasibo finantzarioak	595	0	595	6.000	1008	6.000
Diru-sarrerak, guztira	14.810.391	300.029	15.110.420	14.858.916	98	14.858.916

V.2. EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA (2020)

Kontzeptuak	2019			2020		
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Aurrekontu-emaiza	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Aurrekontu-emaiza
a. Eragiketa arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura)	13.286.446	11.379.511	1.906.935	13.878.091	11.656.283	2.221.808
b. Kapitaleko eragiketak (6. eta 7. kapituluak)	1.315.205	935.839	379.366	942.205	609.953	332.252
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b)	14.601.651	12.315.350	2.286.301	14.820.296	12.266.236	2.554.059
c. Aktibo finantzarioak (8. kapitulua)	32.087	33.424	-1.336	32.620	16.741	15.879
d. Pasibo finantzarioak (9. kapitulua)	0	0	0	6.000	0	6.000
2. Finantza-eragiketak, guztira (c+d)	32.087	33.424	-1.336	38.620	16.741	21.879
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza (1+2)	14.633.738	12.348.774	2.284.965	14.858.916	12.282.977	2.575.938
Doikuntzak						
3. Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			333.487			300.029
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak			-			-
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak			300.029			368.246
II. Doikuntzak, guztira (3+4-5)			33.458			-68.217
Aurrekontu-emaiza doitu (I+II)			2.318.423			2.507.722
PODEMOS-AHAL DUGU-ORAIN BAI talde parlamentarioaren 2018ko dirulaguntza deuseztatzea			275.530			-
FORU OGASUNARI ITZULTZEKO ZENBATEKOA			2.593.953			2.507.722

V.3. 2020ko ABENDUAREN 31ko DIRUZAINZTA-GERAKINA

Osagaiak	2019	2020
1. Funts likidoak	3.145.498	3.132.277
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	5.096	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak	5.096	0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	2.850.565	2.764.031
(+) Ekitaldiko aurrekontukoak	118.502	140.909
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak	2.732.063*	2.623.122*
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1+2-3)	300.029	368.246
II. Finantzaketa atxikiaren gaindikina	300.029	368.246
III. Saldo kobragaitzak	0	0
IV. Diruzaintza-gerakin atxikigabea (I-II-III)	0	0

* Foru Ogasunari itzuli beharreko funtsak jasotzen ditu.

V.4. 2020ko ABENDUAREN 31ko BALANTZEA

(Emaiza aplikatu ondoren)

	2019	2020
AKTIBOA, GUZTIRA	19.586.650	19.335.521
A) Aktibo ez-arrunta	16.418.552	16.187.297
I. Ibilgetu ukiezin garbia	169.387	144.141
3. Aplikazio informatikoak	167.189	142.178
2060-2806. Aplikazio informatikoak	167.189	142.178
5. Bestelako ibilgetu ukiezina	2.198	1.963
2090-2809. Bestelako ibilgetu immateriala	2.198	1.963
II. Ibilgetu material garbia	16.213.555	16.021.868
2. Eraikinak	13.251.734	12.911.374
2110-2811. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	13.251.734	12.911.374
5. Bestelako ibilgetu materiala	2.952.547	3.095.988
2140-2814. Makineria eta tresnak	961.363	862.736
2150-2815. Garraio-osagaiak	0	0
2160-2816. Altzariak eta tresneria	29.067	22.264
2170-2817. Informazio-prozesuetako ekipamenduak	196.778	399.235
2190-2819. Bestelako ibilgetu materiala	1.765.339	1.811.753
6. Aribideko ibilgetua	9.274	14.506
2340-Aribideko ibilgetua	9.274	14.506
V. EPE LUZEKO INBERTSIO FINANTZARIOAK	35.610	21.288
4. Bestelako inbertsio finantzarioak	35.610	21.288
2540. Epe luzeko maileguak	35.610	21.288
B) Aktibo arrunta	3.168.098	3.148.224
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	5.096	0
3. Administrazio publikoak	5.096	0
4709 – Ogasun publikoa zordun, kontzeptu fiskalak	524	0
4490 – Beste zordun batzuk	4.572	0
V. Epe laburreko inbertsio finantzarioak	17.504	15.947
4. Bestelako inbertsio finantzarioak	17.504	15.947
5440-534. Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	17.504	15.947
VII. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	3.145.498	3.132.277
1. Kutxa	1.130	2.664
5700 – Kutxako eskudirua	1.130	2.664
2. Bankuak eta kreditu-erakundeak	3.144.368	3.129.613
5711 – Rural Kutxako kontu korrontea	3.144.368	3.129.613
ORDENA-KONTUAK	12.442	18.801
Abalak eta bermeak	12.442	18.801
0520 – Jasotako abalak	12.442	18.801

	2019	2020
PASIBOA, GUZTIRA	19.586.650	19.335.521
A) Ondare garbia	16.725.553	16.554.958
I. Jarritako ondarea	14.887.337	14.282.128
1000. Ondarea	8.183.052	7.577.843
1001-1070. Atxikipen gisa jasotako ondarea	6.704.285	6.704.285
II. Sortutako ondarea	300.029	368.246
2. Ekitaldiko emaitzak	300.029	368.246
1291. Atxikitako funtsak, aplikatzeko daudenak	300.029	368.246
IV. Emaitzei aplikatzeko zain dauden beste ondare-gehikuntza batzuk	1.538.187	1.904.584
1300. Dirulaguntzak	1.538.187	1.904.584
B) Pasibo ez-arrunta	10.532	10.532
1800. Epe luzeko fidantzak	10.532	10.532
C) Pasibo arrunta	2.850.565	2.770.031
I. Epe laburreko zuzkidurak. Epe laburreko zorrak.	0	0
II. Epe laburreko zorrak	0	6.000
4. Bestelako zorrak	0	6.000
5600-5200. Jasotako epe laburreko fidantzak eta gordailuak	0	6.000
IV. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk	2.850.565	2.764.031
1. Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	118.567	140.909
4000. Aitortutako betebeharren hartzekodunak, aurtengo aurrekontuan	118.502	140.909
4199 – Beste hartzekodun batzuk	65	0
3. Administrazio publikoak	2.731.998	2.623.122
4750. Ogasun Publikoa zordun, PFEZa dela eta	0	0
4751. Ogasun Publikoa Eskubide pasiboengatik hartzekodun	0	0
4752. Ogasun Publikoa Erabilera bereziaren hartzekodun	0	0
4760. Ogasuna hartzekodun, kreditu-itzulketengatik	2.593.953	2.507.722
4770. Gizarte Segurantza hartzekodun	138.045	115.400
ORDENA-KONTUAK	12.442	18.801
Abalak eta bermeak	12.442	18.801
0570 Abal-emaileak	12.442	18.801

V.5. 2020ko EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

	2019	2020
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	13.725.251	14.410.519
a) Ekitaldikoak	13.725.251	14.410.519
a.2) Transferentziak	13.725.251	14.410.519
7500.Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	538.911	575.808
7510.Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	13.186.340	13.834.711
3. Salmenta garbiak eta zerbitzu-emateak	0	0
6. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	100.106	43.379
7730.Itzulketak	92.756	41.927
7770.Beste diru-sarrera batzuk	7.350	1.452
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira	13.825.357	14.453.898
8. Langile-gastuak	7.385.308	7.268.039
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	6.230.999	6.071.554
6400.Soldatak eta lansariak	2.725.825	2.743.806
6401.Behin-behineko langileen lansariak	547.014	571.321
6410.Funtzionarioen lansariak	2.637.157	2.615.952
6411.Langile kontratatuen lansariak	256.201	81.508
6402.Parlamentarien dietak eta garraioak	7.136	6.830
6412.Bestelako dietak eta garraioak	6.336	1.862
6449.Langileen beste gizarte-gastu batzuk	35.105	34.050
6409.Parlamentarien beste gizarte-gastu batzuk	16.225	16.225
b) Gizarte-zamak	1.154.309	1.196.485
6420.Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantzza	1.154.309	1.196.485
9. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	2.760.623	2.997.668
6500. Transferentzia arruntak	2.610.390	2.832.758
6510-Dirulaguntzak	150.233	164.910
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.233.580	1.390.576
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	771.244	956.740
c) Beste batzuk	462.336	433.836
12. Ibilgetuaren amortizazioa	772.740	826.886
B) Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira	12.152.251	12.483.169
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)	1.673.106	1.970.729
13. Beste diru-sarrera batzuk	275.530	0
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza	1.948.636	1.970.729
15. Diru-sarrera finantzarioak	0	0
III. Finantza-eragiketen emaitzak	0	0
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (II+III)	1.948.636	1.970.729

V.6. 2020ko ONDARE GARBIAK IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Beste ondare- gehikuntza batzuk	Guztira
A. Amaierako ondare garbia, 2019	14.887.337	300.029	1.538.187	16.725.553
B. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldatetengatik eta akatsak zuzentzeko egindako doikuntzak		0	0	0
C. 2020ko hasierako ondare garbi doituak	14.887.337	300.029	1.538.187	16.725.553
D. 2020ko ondare garbiak izandako aldeak	-605.209	68.217	366.397	-170.595
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	0	368.246	366.397	734.643
Ondare garbian izandako beste alde batzuk	-605.209	-300.029	0	-905.238
Amaierako ondare garbia, 2020	14.282.128	368.246	1.904.584	16.554.958

V.7. 2020ko ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

	2019	2020
I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
A) Kobrantzak:	13.660.716	14.215.438
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	13.565.706	14.166.963
6. Beste kobrantza batzuk	95.010	48.475
B) Ordainketak:	14.307.612	14.257.163
7. Langile-gastuak	7.245.476	7.152.639
8. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	2.750.477	2.988.589
10. Bestelako kudeaketa-gastuak	1.140.370	1.265.370
13. Beste ordainketa batzuk	3.171.289	2.850.565
Kudeaketa-jarduerengatik eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)	-646.896	-41.725
II. INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
C) Kobrantzak:	32.152	38.620
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	32.152	38.620
D) Ordainketak:	955.903	620.069
4. Inbertsio errealean erosketa	922.479	603.329
6. Inbertsio-jardueretako beste ordainketa batzuk	33.489	16.740
Inbertsio-jarduerengatik eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)	-923.751	-581.449
III. FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
E Ondare-gehikuntzak	935.839	609.953
1300. Ibilgetu finantzarioa finantzatzeko dirulaguntzak	935.839	609.953
G) Finantza-pasiboen kobrantza		
Finantzaketa-jarduerengatik eskudiru-fluxu garbiak	935.839	609.953
VI ESKUDIRUAREN ETA HAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN IGOERA/JAITSIERA GARBIA EKITALDIAN (I+II+III)	-634.808	-13.221
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	3.780.306	3.145.498
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	3.145.498	3.132.277

VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarriren bat ere.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez Nafarroako Parlamentuaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. PARLAMENTUAREN AURREKONTUA

Parlamentuaren 2020rako hasierako aurrekontuak 14,81 milioi euroko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspen hasierakoak jasotzen zituen.

Gastuetan eta diru-sarreretan goranzko aurrekontu-aldaketa batzuk egin ondoren, 300.029 eurokoak —hasierako kredituen ehuneko bi egiten dute—, behin betiko gastu eta diru-sarrerek 15,11 milioi euro egiten dute.

Aurrekontu-likidazioa

2020an, gastuek 12,28 milioi euro egin zuten, betetze-maila ehuneko 81ekoa eta ordaintze-maila ehuneko 99koa izanik. Gastu horiek 2019koak baino ehuneko bat txikiagoak izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2020an 14,86 milioiko eskubideak aitortu ziren, eta betetze- eta ko-bratze-mailak ehuneko 98koa eta 100ekoa izan ziren, hurrenez hurren. Kasu honetan, 2019koekiko igoera ehuneko bikoia izan da.

Taula honetan ageri dira Parlamentuaren gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekoetan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzatze-iturria	Ehunekoa
Langileak	59	Transferentzia arruntak	93
Transferentzia arruntak	24	Kapital-transferentziak	6
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	11	Besterik	1
Inbertsio errealak	5		
Besterik	1		
	100		100

Langile-gastuek guztizko gastuaren ehuneko 59 egiten dute; transferentzia arruntek, berriz, ehuneko 24; azkenik, gastu arruntek eta zerbitzuek ehuneko 11 egiten dute. Diru-sarreretan, transferentzia arruntek eta kapitalekoek guztizkoaren ehuneko 93 eta sei egiten dute, hurrenez hurren.

Ondoren, 2019ko eta 2020ko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin zerikusia duten adierazle batzuen alderaketa erakusten dugu:

Adierazlea	2019	2020	Aldearen %, 2020/2019
Aitortutako eskubideak, guztira	14.633.738	14.858.916	2
Aitortutako betebeharrak, guztira	12.348.774	12.282.977	-1
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	13.286.446	13.878.091	4
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	11.379.511	11.656.283	2
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	1.315.205	942.205	-28
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	935.839	609.953	-35
Saldo ez-finantzarioa	2.286.301	2.554.060	12
Aurrekontu-erabiltzaerak	2.318.423	2.507.722	8
Diruzaintza-gerakina	300.029	368.246	23

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- Diru-sarrera arruntak ehuneko lau igo dira, eta kapitalekoak, berriz, ehuneko 28 jaitsi dira.
- Funtzionamendu-gastuek ehuneko bi egin dute gora; kapitalekoak, berriz, ehuneko 35 jaitsi dira.
- Aurrekontu-emaiza doituia 2,51 milioi eurokoa da, eta ehuneko zortzi igo da 2020an, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.
- Foru Ogasunari guztira 2,51 milioi itzuliko zaizkio. Zenbateko hori 2019. urtearengatik itzuli-takoa baino ehuneko hiru txikiagoa da. Kontuan hartu beharra dago urte hartan, aurrekontu-emaitez gainera, Podemos-Ahal Duguri emandako dirulaguntza deuseztatzeari zegokion kopurua itzuli zela.

VI.2. AURREKO URTEETAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Egiaztatu dugu indarrean jarraitzen duela 2019. urteko kontuei buruzko Ganbera honen txostenean langileei buruz jasotako gomendioak:

Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoan hutsik dauden lanpostuak deialdi publikoaren bidez betetzea gomendatzen dugu, lanpostu horiek aplikatzekoa den araudiaren arabera behin betiko betetzeko.

VI.3. KUDEAKETA-ARLOAK

VI.3.1. Alderdi orokorrak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrak 2019ko azaroan onetsi zuten 2020rako Aurrekontuen Proiektua. Nafarroako Aurrekontu Orokorrak, non Parlamentuaren aurrekontuak integratzen baitira, martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen bidez onetsi ziren, eta 2020ko martxoaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

VI.3.2. Langile-gastuak

Nafarroako Parlamentuaren langile-gastuek 7,25 milioi euro egin zuten 2020an, ehuneko 88ko betetze-mailarekin. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 59 egiten dute.

2019ko ekitaldiarekin alderatuta, langileria-gastuek ehuneko bi egin zuten behera, jarraian xehakaturik azaltzen denez:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, garbiak, 2019	Aitortutako betebeharrak, garbiak, 2020	2020/2019 aldea (%)
Lehendakaritzaren ordainsariak	69.368	73.380	6
Parlamentarien ordainsariak	2.500.878	2.489.571	-0,5
Parlamentari ohien ordainsariak	112.762	123.287	9
Parlamentarien dietak	42.817	57.568	34
Lehendakaritzako Kabineteko behin-behineko langileen ordainsariak	87.852	96.279	10
Behin-behineko langileen ordainsariak. Beste kargudun batzuk	459.162	475.042	3
Funtzionarioen ordainsariak	2.637.156	1.893.716	-28
Aldi baterako lan-kontratupeko langileen ordainsariak	256.201	803.745	214
Gizarte Segurantzak	659.791	679.148	3
Parlamentarien gizarte segurantzak	494.518	517.337	5
Parlamentarien aseguruaren prima	16.225	16.225	-
Zerbitzuetako langileen aseguruaren prima	23.786	24.546	3
Guztira	7.360.516	7.249.844	-2

Funtzionarioen ordainsariak ehuneko 28 jaitsi dira, zortzi pertsonaren erretiroaren ondorioz; hori dela eta, kontratatutako langileei dagozkienak ehuneko 214 igo dira.

Parlamentarien dietengatiko ordainsariekin zerikusia duen aurrekontu-partidaren exekuzioa ehuneko 34 handitu zen 2019. urtearekin alderatuta, araubide horri heltzen dion pertsona bat gehiago zegoelako, eta dieten zenbatekoak handitu zirelako gainerako langileentzat adostutakoaren ildotik, Parlamentuko Mahaiaren 2020ko urtarrilaren 27ko erabakiari jarraituz.

Plantilla organikoa

Nafarroako Parlamentuaren 2020rako plantilla organikoa eta 2019ko abenduaren 31ko langile-zerrenda ez ziren onetsi; beraz, indarrean jarraitzen du 2019rako onetsitakoak.

Honako hauek dira lanpostuak, onetsitako azken plantilla organikoaren arabera:

Sailkapena	2020/12/31
Funtzionarioak	59
Behin-behineko langileak.	3
Talde parlamentarioetako laguntzaileak	13
Guztira	75

Funtzionarioen lanpostuen 2020ko abenduaren 31ko egoera eta bilakaera taula honetan ikus daitezke:

	2019/12/31	2020/12/31
Plantillako lanpostuak	59	59
Lanpostu beteak	41	33
Lanpostu hutsak	18	26
Lanpostu hutsek guztizkoan egiten duten ehunekoa	31	44
Betetako lanpostu hutsak	13	22
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak (%)	72	85

Lanpostu guztien ehuneko 44 hutsik daude; eta horien ehuneko 85, aldi baterako beteta. 2019an, portzentaje horiek ehuneko 31 eta ehuneko 72 ziren, hurrenez hurren. Lanpostu hutsek gora egin dute 2020an, zortzi pertsona erretiratu direlako, arestian aipatu bezala.

2020ko abenduaren 31n, honako langile hauek lan egiten zuten Nafarroako Parlamentuan:

Langileak	2019/12/31	2020/12/31
Funtzionarioak	39	31
Behin-behineko langileak.	3	3
Talde parlamentarioetako laguntzaileak	13	13
Administrazio-kontratudun langileak	16	22
Guztira	71	69
Langile kontratatuak/langile guztiak (%)	23	32

Administrazio-kontratudun langileen azterketari dagokionez, honako alderdi hauek ikusten ditugu:

- Hiru urte baino gehiagoko antzintasuna duten 11 kontratu daude, eta bi urte baino gehiagokoa duten hiru kontratu.
- Plantillan bost legelari-lanpostu daude, eta horietatik hiru hutsik daude eta administrazio-kontratudun langileek betetzen dituzte.
- Zerbitzu Orokorretako burutzan, 2017tik administrazio-kontratudun langile bat dago, zazpi urte baino gehiagoko antzintasuna duena.

Aurreko datu guztiak aztertzen baditugu, ikusiko dugu plantilla organikoan 75 lanpostu daukela: 59 funtzionario, hiru behin-behineko langile eta talde parlamentarioen 13 laguntzaile. Fun-

tzionarioen lanpostuetatik 26 hutsik daude, eta horietatik 22 administrazio-kontratua duten langileek betetzen dituzte. Haiek betetzeko hautaketa-prozesuak ez dira hasi.

Horri buruz esan behar dugu Parlamentuak jada 2020. urtearen erdialdean aztertu zuela Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuak berrantolatu eta lanpostu hutsak betetzeko beharra. Mahaiaren 2020ko ekainaren 22ko Erabakian, kronograma bat finkatu zen, zeinean jasotzen baitzen 2021eko urtarrilean plangintza bat hastea lanpostu hutsak behin betiko betetzeko. Hala ere, txosten hau idaztean, atzerapena dago aurreikusitako kronograma betetzeari dagokionez; besteak beste, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak ekarritako ezohiko egoeraren ondorioengatik.

Egiaztatu dugu araudiaren araberakoak direla foru parlamentariak jasotako ordainsariak eta parlamentari ohiei haiek eskatu ondoren ordaindutako karguoste-ordainsariak.

Langileen gastuei dagokienez, nomina-lagin bat berrikusi dugu, eta ondorioztatu dugu ezen, oro har, langileei ordaindutako lansariak bat datozela plantilla organikoaren arabera betetzen dituzten lanpostuekin eta kasuan kasuko inguruabar administratibo eta familiarrekin, eta araudian ezarritakoaren araberakoak direla; halere, honako alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

- Parlamentuak langile-lekualdaketa horizontala egin ondoren, euskara-eskakizundun administrari-lanpostu bat hutsik geratu zen Zerbitzu Orokorretan. Parlamentuko indarreko zerrendetan baldintza hori betetzen zuen hautagairik ez zegoenez, ez eta NFKAko Funtzio Publikoan zerrenda indardunik ere, Parlamentuaren zerrenda indarduneko pertsona bat kontratatu zen administrari gisa, eskakizun hori betetzen ez zuena, zerrenda berri propio bat eratu beharrean Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez, edo, are, aldi baterako kontrataziorako deialdi propio bat egin ordez.

Gure gomendioak:

- *Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen plantilla organikoa urtero onestea.*
- *Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoan dauden lanpostu hutsak deialdi publikoaren bidez betetzeko hasitako egintzekin jarraitzea, aplikatu beharreko araudiari jarraikiz lanpostu horiek behin betiko betetzeko.*
- *Lanpostu hutsak behin betiko bete bitartean, bete behar dira horiei lotutako hizkuntza-eskakizunaren eta administrazio-egoeraren baldintzak betetzen dituzten langileekin.*

VI.3.3. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

Parlamentuaren ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 1,41 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 11 egiten dute; haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 60koa izan zen. Kapitulu honetako gastuek ehuneko 12 egin zuten gora 2019ko ekitaldikoekin alderatuta.

Gastu eta zerbitzuetako gastu arrunten kontzeptu nagusiak, eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa, honakoak dira:

Kontzeptu ekonomikoa	Aitortutako betebeharrak garbiak, 2019	Aitortutako betebeharrak garbiak, 2020	Aldea (%) 2020/2019
Garbitze- eta txukuntze-zerbitzuak	295.282	306.265	4
Makineria, tresnak eta lanabesak konpontzea	150.308	202.821	35
Hornidurak	191.222	166.773	-13
Ekipamendu eta programa informatikoen konponketa eta mantentzea	103.877	156.430	51
Informazio zerbitzuak	73.221	115.571	58
Egindako beste lan batzuk	124.268	106.649	-14
Eraikinen konponketa eta mantentzea	45.445	106.562	134

Honako gastu-lagin hau aztertu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako betebehargarbiak, 2019	Aitortutako betebehargarbiak, 2020	Aldea (%) 2020/2019
Makineria, tresnak eta lanabesak konpontzea	150.308	202.821	35
Datu-baseen errentamendua	27.577	27.632	0,2
Kultur zabalkundeko jarduerak	30.246	25.005	-17

Egindako lanaren konklusioa da gastuak, oro har, zuzen kontabilizatuta eta justifikatuta daudela, eta araudian ezarritako epean ordaindu direla.

VI.3.4. Transferentzia arruntetako gastuak

Parlamentuaren transferentzia arruntetako gastuak 2,99 milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 24 egiten dute; haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 94koa izan zen. Kapitulu honetako gastuak 2019koen antzekoak izan ziren, eta ehuneko 0,9 egin zuten gora.

Talde parlamentarioei esleitutako gastu-partida berrikusi da, 2,78 milioi eurokoa, kapituluko gastuen ehuneko 93 hartzen duena, taldeen arabera honako xehetasun hauekin:

Talde parlamentarioa	Zenbatekoa
Navarra Suma talde parlamentarioa	916.308
Socialistas de Navarra talde parlamentarioa	587.712
Geroa Bai talde parlamentarioa	475.752
EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa	412.910
Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarte	209.052
Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa	178.104
Guztira	2.779.838

Egiaztatu dugu talde parlamentarioei ordaindutako zenbatekoa Mahaiak 2020ko urtarrilaren 27an hartutako erabakiaren bidez onetsitako ordainsari ekonomikoari dagokiela, eta ez duela aldatarik izan aurreko urtekoarekin alderatuta.

Parlamentuaren 2018ko kontuei buruz egindako txostenean, Kontuen Ganberak gomendatu zuen talde parlamentarioei esleituriko ordainsarien kontrolerako prozedura batzuk ezartzea, zilegiztat harturik talde parlamentario haiei eskatu ahal izatea jasotako dirulaguntzen berariazko kontabilitate bat aurkeztearen, dirulaguntza horiek behar bezala erabili direla egiaztatze aldera.

Gomendio horri erantzunez, Mahaiak, 2019ko irailaren 2ko Erabakiaren bitartez, talde parlamentarioentzako ordainsariei buruzko arau batzuk onetsi zituen, zeinek 2020ko urtarrilaren 1ean hartu baitzuten indarra. Honako hau da, funtsean, haien edukia:

- Talde parlamentarioek dirulaguntzen berariazko kontabilitatea aurkeztu beharko dute nahitaez, eta horretarako, ekonomia- eta finantza-kudeaketaren arduradun bat izendatuko dute.
- Urteko kontabilitatea hurrengo ekitaldiko apirilaren 1a baino lehen aurkeztuko da; eta, legegintzaldi-amaierakoak diren ekitaldietan, hiru hilabeteko epean, amaieratik zenbatzen hasita.
- Talde parlamentarioek aurkeztu beharreko balantzearen, emaitza-kontuaren eta oroitidazkiaren eredu laburtuak definitzen dira, alderdi politikoei egokitutako Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoei jarraikiz. Oroitidazkiaren barruan, gastuen eta diru-sarreraren xehetasunak jasotzen dira.
- Talde parlamentarioen kontabilitatea aurkezteko prozedura zehazten da. Talde horien oinarritzko urratsak honako hauek dira: taldeek kontabilitatea aurkeztea, Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuaren txostena, dokumentazioa edo akatsak zuzentzeko 15 eguneko epea, Mahaiaren ebazpen-proposamena, ados ez dauden talde parlamentarioei entzutea eta Mahaiaren behin betiko ebazpena. Mahaiaren behin betiko ebazpena Parlamentuaren webgunean eta erakundearen aldizkari ofizialean argitaratuko da.

- Zehapenak ezartzen dira arauak betetzen ez diren kasuetarako; esate baterako, Mahaiak exijitzea behar bezala kontabilizatu edo justifikatu gabeko kopuruak itzul daitezzen. Gainera, aipatzen da ezen, erreklamaturako kopurua itzultzen ez bada edo ezarritako betebeharren beste edozein ez-betetzereen bat gertatzen bada, eten eginen dela dirulaguntzen ordainketa.

- Talde parlamentarioek alderdi politikoei egiten dizkieten ekarpenei dagokienez, ez da inongo muga edo baldintzarik ezartzen; soilik ezartzen da haiek aitortu egin behar direla aurkeztu beharreko kontuetan. Ekarpene horien fiskalizazioa Kontuen Auzitegiaren ardurapean uzten da.

Egiaztatu dugu bete egin dela talde parlamentarioek eta Parlamentuak 2020ari buruzko kontabilitatea aurkezteko ezarritako prozedura.

Bestalde, honako kontzeptu ekonomiko hauen betetzea ere berrikusi dugu:

Kontzeptua	Aitortutako betebehar garbiak, 2019	Aitortutako betebehar garbiak, 2020	Aldea (%) 2020/2019
Hitzarmenak	150.083	149.910	-0,12
Garapen- eta elkartasun-jardueretarako dirulaguntza	0	52.920	-
Sahara taldeartekoarentzako dirulaguntza	0	15.000	-

Egiaztatu da ezen, orokorrean, kontu hartutako gastuak baimenduta, fiskalizatuta, justifikatuta eta behar bezala kontabilizatuta daudela, eta dirulaguntzak haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera eman, justifikatu eta ordaindu edo, kasua bada, itzuli direla.

VI.3.5. Kontratazioa

Honako kontratu hauen adjudikatzeko-prozedura eta betetzea berrikusi ditugu:

Kontratua	Adjudikazio-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Lizitatuak kopurua	Urteko adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)
Nafarroako Parlamentuaren egoitzaren argiteria berritzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behetikoa	161.800	3	158.641
Nafarroako Parlamenturako 75 PC ekipamendu eta monitoreren hornidura	Sinplifikatua	59.950	5	50.948
Bilkura eta ekitaldi instituzionalerako laguntza teknikoa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	120.000	2	375
Bilkura telematikoak egiteko ekipamendua hornitzea	Emergentzia bidez izapidetua	-	1	7.350

Oro har, aipatutako kontratuak adjudikatzeko espedienteak Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeari jarraituz izapidetu dira, eta haietatik datozen gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude, eta araudian ezarritako epeetan ordaindu dira. Halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Atzerapen aipagarri bat gertatu zen Parlamentuaren egoitzaren argiteria berritzeko kontratua betetzerakoan, nahiz eta betetze-epea irizpide garrantzitsua izan zen kontratua adjudikatzeko. Kontratistari ez zitzaion zehapenik ezarri, eta gertatutako atzerapena ontzat ematen duen inongo txostenik ez dago jasota.

Gomendatzen dugu espedienteen jaso daitezkeen kontratuak betetzerakoan gertatutako atzerapenen arrazoiak, atzerapenik gertatuz gero, bai eta adjudikaziodunari zigorra ezartzearen komenigarritasuna edo halakorik eza ere.

VI.3.6. Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak, hurrenez hurren, 13,83 eta 0,94 milioi eurokoak izan dira, diru-sarrera guztien % 99, eta horien betetze-maila % 100ekoa izan da. Aurreko ekitaldikoekiko alderaketa honako hau da:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak, 2019	Aitortutako esku-bide garbiak, 2020	Aldea (%) 2020/2019
Transferentzia arruntak	13.186.340	13.834.711	5
Kapital-transferentziak	1.315.205	942.205	-28


Horri dagokionez, egiaztatu dugu aurrekontu-informazioa koherentea dela NFKAren gandik lortutakoarekin.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta eman da, bera izanik horretarako lanaren arduraduna.

Iruñean, 2021eko ekainaren 22an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

ERANSKINA. NAFARROAKO PARLAMENTUAREN ORGANIGRAMA



BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak 2021eko ekainaren 15ean igorritako behin-behineko fiskalizazio-txostena, Nafarroako Parlamentuaren 2020ko ekitaldiari buruzkoa, eta Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluari eta erakunde horren prozedura-eskuliburuan xedatutakoari jarraikiz, txosten hori behin-behinekoz onetsia izan ondoren, beharrezko gertatzen da Parlamentuari bidaltzea, ekainaren 22ra bitartean hark alegazioak egin ditzan, egoki iritziz gero.

Kontuan hartuta txosten horretan gomendatzen dela Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoko lanpostu hutsak, araudiari jarraikiz, deialdi publikoaren bidez behin betikoz betetzea, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuari buruzko 2020ko fiskalizazio-txostenaren edukia jasotzat ematea.
2. Egindako gomendioari dagokionez, Kontuen Ganberari jakinaraztea gaur egun Langileen Batzordearekin negoziatzen ari dela Nafarroako Parlamentuko zerbitzuak berrantolatzeko arauak aldatzeko proposamena, dauden lanpostu hutsak kronograma aurreikusiararen arabera betetzearen aurretiazko urrats bezala.
3. Erabaki honen berri ematea Kontuen Ganberari eta Nafarroako Parlamentuko Kontuhartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak ematen dizkiogu Nafarroako Parlamentuko lehendakariari, aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat ezartzen da, jotzen baita egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla alegazio horiek, eta ez dutela haren edukia aldatzen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 22an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera –deialdia Kontuen Ganberako lehendakariaren 2021eko ekainaren 1eko ebazpenaren bidez onetsi zen–, behin eska-bideak aurkezteko epea bukatu, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta hura Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitaratzea.

Izangai bazterturik egon ez denez, bidezkoa da zerrenda hau behin betikotzat onestea.

Horrenbestez, lehendakaritza honek

EBAZTEN DU:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoreen bi lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

a) Onartuak:

Alcalde Martínez, Eneko

Aldasoro Errea, Eñaut

García Cascante, M^a Esperanza

García Logroño, José Javier

González de Castejón Hermoso, María Jesús

Perez Arrazubi, Ana María

Pernaut Villanueva, Idoia

Salinas Munarriz, Andrea

Sánchez Arteaga, María Nieves

Serrano Arana, Aimar

Trankner Sagües, Marcia Isabel

Bigarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitaratzea.

Iruñean, 2021eko abuztuaren 6an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

